GARA
www.naiz.eus/gara
2015/12/3
OSTEGUNA
XVII. urtea | 6.102. zenbakia | 1,50 euro
free OTEGI THEM ALL

# Presos revelan ofertas para romper EPPK y avalan la estrategia

Seis militantes condenados por París critican que se utilice el bloqueo para crear tensiones. Fue en el marco de la marcha del sábado en Bilbo

Mikel Karrera, Izaskun Lesaka y otros cuatro militantes vascos condenados ayer por París a fuertes penas revelaron tras el juicio que uno de ellos fue «invitado» a dejar EPPK por sectores opuestos a la estrategia de la izquierda abertzale. La apoyan expresamente y piden «sumar fuerzas, no disgregarlas». >2-3

**EDITORIALA** >10

Estratagemas y estrategias

## El previsto veto del TC a la Declaración une otra vez al soberanismo catalán

Como estaba cantado, el Tribunal Constitucional español anuló ayer por la vía rápida, con unanimidad y sin sorpresa alguna la Declaración de ruptura que aprobó el Parlament, y que precisamente niega cualquier legitimidad al TC. Aunque fue jaleado en Madrid, el efecto real de esta decisión judicial fue volver a unir al soberanismo catalán. El Govern se lo tomó con sorna: «El Constitucional no defrauda nunca». En paralelo, el fiscal de la AN denunció a cinco ayuntamientos catalanes por el mismo tema. >5

## David Fernández propone a la CUP ceder dos votos a Mas



### Saizarbitoria kasualitateari tiraka, «Lili eta biok» eleberrian

Gerra, gaixotasuna, heriotza, kulpa... mataza berberean kiribildutako gertakizunak dira «Lili eta biok» Ramon Saizarbitoriaren azken eleberrian. Ez du soka aurrefabrikaturik erabili, hari mutur sorta baizik, eta kasualitateak eraman du historia batera ala bestera. >36

Testua: Ariane KAMIO
Argazkia: Jon URBE | ARGAZKI PRESS

**PARO EN NOVIEMBRE** Menos desempleo y más afiliación, pero a costa del abuso de contratos parciales >24

**R. JIMENO,** HIJO DE J.M. JIMENO JURÍO

## *«Mi aita conectaba con todos y aprendía de todos»*

José María Jimeno Jurío recibe hoy a título póstumo una Medalla de Oro de Nafarroa ganada a pulso con su vasta labor en la historiografía popular y local, la etnografía o la recuperación de la memoria de 1936, de la que fue pionero. Lo remarca en una entrevista a GARA su hijo Roldán Jimeno, también historiador. Evoca su labor y el modo de realizarla –pueblo a pueblo y «con empatía»– y agradece un reconocimiento negado antes por los gobiernos de UPN. >6-7

## Muguruza vuelve con un documental de Nueva Orleans

«Nola?», el documental sobre el huracán Katrina, y ocho de sus conocidas canciones interpretadas por músicos neorleanos llenan la maleta que Fermin Muguruza trae de su viaje a Nueva Orleans. >8-9

ABENDUAREN 3a
Euskararen Nazioarteko Eguna
Administrazioa euskaraz


Ramon Saizarbitoriak ez du soka aurrefabrikaturik erabili. Hari mutur bilketa bat egin eta banan-bana osotasun bateraino eraman du punta bakoitza. Zirkuitu elektriko bat izan zitekeen «Lili eta biok», kable buruz jositako armazoi bat. Baina kasualitateetatik gehiago du formulazio matematikoetatik baino. Gerra, gaixotasuna, heriotza, kulpa... mataza berberean kiribildutako ausazko gertakizunak dira poliedrikotasunetik sortu den eleberrian.

Ariane KAMIO | DONOSTIA

# Kasualitatea, etengabe




**Kasualitatez kasualitate osatu du Ramon Saizarbitoriak bere azken nobelaren hezurdura.** Jon URBE | ARGAZKI PRESS

Liburuekin eta umeekin antzeko zerbait gertatzen da Ramon Saizarbitoriaren (Donostia, 1944) irudiz. Pobre garaian ume asko eta liburu gutxi –eleberriak behintzat–. Eta etxeko andreak hirugarren edo laugarren haurra zetorrela adieraziz gero, senarraren kezka. Liburuekin, alderantziz, gutxi argitaratu eta kaleratutako haiekin, pozik. Gaur, alderantzizkoa ei da jokoa: haur gutxi eta liburuak barra-barra. Beste ume bat, beste ale bat, "Lili eta biok" (Erein).

Nobela bat amaitzean idazleak izaten omen du idazten jarraitzeko gogoa, postpartum depresio bat. Arin idaztekoa, ur sakonetan sartzeko gogo agortuaren ondorengoa. "Martutene" mardul haren ondotik, erditze hartatik berreskuratzeko-edo alboratutako irakurketa batzuk berrartu zituen Saizarbitoriak. Eta topatu zituen emakumeek idatzitako lan pornografiko-sentsualak. Idatzi zituen molde horretako ipuin batzuk, ironiaz jantzita. «Bat luzatu egin zitzaidan, gusturago sentitu nuen neure burua». Anjel Lertxundiren lan batean irakurritako anekdota batean ere ikusi zuen hari mutur bat «gauzak konplikatzeko»; "Kandinskyren tradizioa" (2003) lanarekin izandako bizipenak berriz bizitzeko gogoagatik bazuen gazteengana gerturatzeko intentzioa, zerbait «pedagogikoa» egitekoa... Eta hortik sortu zen Lili. Ez daki autoreak zergatik izen horrekin, «baina ez da Lolita bat». Hasiera puntua zen, «modu artifizialean» gerora eraiki duen obrarena.

Kasualitatea hari mutur sorta da Saizarbitoriaren nobelan. «Biok» horren atzean da Faustino Iturbe protagonista. Maniatikoa, eskrupulosoa. Oso gaixo dagoelako idazten ez duen idazle bat, edo, idazten ez duelako gaixorik dagoen gizasemea. Bakarrik bizi da kulpa zahar baten zama bere gain eramatera etsita. Baina, ausaz, Lilirekin egingo du topo, harremanen lotura egiteko hitzaren baliagarritasunean fedea gordetzen duen nerabe argiarekin eta "Txiki" txakur abandonatuarekin. «Ezustea, kasualitatea dago. Ze garrantzi duen bizitzan kasualitateak... Eta horrek, literaturan, nola ematen duen jolasteko bidea».

Lili izango da Faustino Iturbe gerra hasieran Ozetan gertatutako maitasun istorio tragiko baten bidean jarriko duen hari muturra, eta gogora ekarriko diona Ondarretako hondartzan neguko goiz batean uretatik, Botticelliren Venusa bailitzan, irteten ikusten duen bainularia. Gauza batek ekarriko du bestea, etengabe. "Txiki"-rekin bizitzeak, gauez kalera atera behar izatea; gauez paseatzeak, Maria Amor bere kanixea atera duen prostitutarekin topo egiteak. Kasualitateak oro.

«Badago sexua gizon neurotiko baten ikuspuntutik ikusita. Badago kulpa ere, gizon izatearen kulpa». Indarkeria matxistak hiltzen dituen emakumeez aritu zen, bide horretan; «notizia horien aurrean gizon izateak badu errudun sentitze hori».

Ausazko enkontru bakoitza da mataza nahasiaren punta bat, eta punta bakoitzak badu bere tonua, batek poliziakoa, besteak umoretsua, patetikoa, komikoa, samurra, hunkigarria. Hari guztiek lokarri nagusi baterako bidea hartuko dute; Faustino Iturbek kontatua izatea exijitzen duen eta Lilik berreskuratu nahi duen Rosarito Jauregikoaren eta Juan Aramendiaren gerra garaiko maitasun erromantiko eta tragikoaren istorioa.

Muturrez mutur, puntarik punta eraiki du Saizarbitoriak nobela poliedrikoa. Gerra, heriotza, gaixotasuna, sexua, maitasuna... Ia hamar urte pasatu ziren "Kandinskyren tradizioa" argitaratu zuenetik "Martutene" (2012) erditu zen artean. Eta hiru urte baino ez azken hartatik "Lili eta biok" munduratu dueneraino. Guztietan, gizon-emakumeen arteko harremanak aztergai izan ditu, eta hemen ere irakurketa errepikatzen du, nahiz eta gehiago ere zabal daitekeen trataeren ikuspuntua. Memoriaren transmisioa, kultur ondarea, gerra, kulpa. Haurrak adina liburu izan ditzakeen gogoeta asmo zorizkoa.

GERUZAK

**Hari nagusira lotutako hari muturrez eraiki du Ramon Saizarbitoriak, geruzaz geruza, «Lili eta biok», gai eta tonuen harilkatze bat; izan daiteke gerraz, heriotzaz edo gaixotasunaz, eta egiten du umore beltzez, ironiaz eta xamurtasunez. Asmakizun poliedrikoa.**